



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 6a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten dio Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kV-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetako erabilera soziala emateko. Osoko Bilkuran izapidetzea (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate osoari egiten dion museo-eskaintzari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (11. or.).

—Galdera, Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (11. or.).

—Galdera, jakiteko zergatik ekoizleek berandu jaso dituzten NPBko 2007ko laguntzak, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egin (12. or.).

—Galdera, Apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (13. or.).

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Castejóngo Hidrocantábrico zentral termikoa lanean hasi izanaren berri, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (13. or.).
- Galdera, espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko 2008ko maiatzaren 29ko akordioa, 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren 2.1 idatz-zatiko bigarren lerrokada aplikatzeari buruzkoa (23. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2008. urterako plantilla organikoa aldatzea (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2008ko apirilaren 30eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“2. artikulua. Izaera.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko kide anitzeko organoa da, eta Nafarroako erakundeen, gizartearen eta Unibertsitate Publikoaren arteko harremanetarako elementua izan behar du.”

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak gure erakundeen sinergiak, koordinazioa eta ekarpenak izan behar ditu.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“3. artikulua. Helburuak.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari honakoa dagokio:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakasleentzako eta bertako irakasleentzako ikerlanen kalitatea hobetzeko laguntza ematea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta haren inguru kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko lankidetzaren bultzatzea.

c) Unibertsitate Publikoa finantzatzeko gizartearen laguntza sustatzea.

d) Nafarroako kultur eta gizarte aurrerapena bultzatzea.”

Zioak: Artikulua aldatuz, argitzen da zein diren Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren helburuak.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

6 a) artikulua testuaren ordez honako hau proposatzen da:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko, bere esparru guztietan, eta hobekuntza lerroak proposatzea.”

Zioak: Errendimendua gainbegiratzeko funtzioa gehiago zehaztea, eta ez hainbeste errendimendua hori ebaluatzeko prozesua; hori jatorrizko testutik ken daitekeen zerbait da.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

6 e) artikulua testuaren ordean honako hau proposatzen da:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontuak Nafarroako Comptos Ganberak auditatzen ez dituen urteetan, Gizarte Kontseiluak kanpoko finantza auditoria bat eskatu ahal izanen du.”

Zioak: Zentzuzkoagoa dirudi Gizarte Kontseiluak kanpoko auditoriak eskatu ahal izatea Gobernu Kontseiluarekin ados egoteko beharrik gabe.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluari f) letra berria eransteko zuzenketa.

“f) Kanpoko erakunde batek gainbegiratuko du Gizarte Kontseiluak –erakunde osoak nahiz kontseilua osatzen duten kideetako bakoitzak– eskaintzen dituen zerbitzuen errendimendua eta kalitatea.”

Zioak: Gizarte Kontseiluak esku hartzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoari kalitatea eskatzeko. Zeinek kontrolatzen du Gizarte Kontseiluaren kalitatea? Bere bileren aktetan eta hemerrotekan aurki daitezkeen hitzaldiek adierazten dutenez, bere kideetako batzuk ezjakinak dira zenbait alorri dagokienez: unibertsitatea, zientzia, giza zientziak, kultura, hizkuntza eta abar.

Beharrezkotzat jotzen dugu kanpoko ikuskaritza baten kontrola.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluko a) idatz-zatiari beste letra bat gehitzea.

a bis) letra berria eranstean da:

“a bis) Nafarroako kultur eta gizarte aurrerapena bultzatzeko lankidetzan aritzea.”

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak esku hartu behar du Nafarroako kultur eta gizarte aurrerapena babesteko.

7. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluko c) idatz-zatiari letra bat gehitzeko zuzenketa.

c bis) letra berria eranstean da:

“c bis) Nafarroako ondarearen egoerari buruzko azterlanak eta txostenak egitea, ondoko hauei dagokienez: giza zientziak, zientziak, ikerketa eta kultura orokorra.”

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak esku hartu behar du Nafarroako kultura ondarea babesteko. Oraindik ere, historia faltsutzen eta ezkutatzten da zenbait monumentu eta erakusketatako errotiluetan (esaterako, frankismo garaiko inskripzioetan, edo Iruñeko harresiei buruz egin zen erakusketa batean, non modu lotsagarrian ezkutatu egin zen San Cristobal gotorlekuan gertatutakoa). Gaztelu plazakoa gertatu zenean, unibertsitatearen eta Gizarte Kontseiluaren esku-hartzea ez zen inon ere ikusi.

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“a) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak izendatuak; parlamentari bakoitzak bi hautagai hautatu ahal izanen ditu gehienez.”

Zioak: Horrela, ordezkaritza hori proportzionala izanen da Parlamentuan dagoen aniztasun politikoarekin.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 3. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“b) Lau kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikalen emaitza ofizialen arabera ordezkari kopuru handiena lortu dituzten sindikatuek proposaturik.”

Zioak: Sindikatuek izendatutako ordezkarien kopurua handitzea, izan ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak ordezkatu behar ditu Nafarroako aniztasun ekonomikoa, soziala eta politikoa. Horretarako, beharrezkoa da murriztea Gobernuak zuzenean izendatutako ordezkarien kopurua.

10. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 3. idatz-zatiko c) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“c) Bi kide, araudi indardunaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean enpresaburuen elkarte garrantzitsuenek proposaturik; kide batek merkataritzako enpresak soilik ordezkatuko ditu, eta besteak, berriz, ekonomia sozialeko enpresak.”

Zioak: Alor ezberdinetakoen enpresen ordezkari-tza bermatzea.

11. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“d) Bi kide, Nafarroako Gobernuan unibertsitateen ardura duen departamentuko kontseilari titullarrak proposaturik.

Zioak: Sindikatuek izendatutako ordezkarien kopurua handitzea, izan ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak ordezkatu behar ditu Nafarroako aniztasun ekonomikoa, soziala eta politikoa. Horretarako beharrezkoa da murriztea Gobernuak zuzenean izendatutako ordezkarien kopurua.

12. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

“2. Gizarte erakundeek edo organismoek proposaturik Gizarte Kontseilurako hautatu diren kideak ezin izanen dira unibertsitateko komunitateko kideak izan, unibertsitateko sindikatuak salbu.

Zioak: Bateriaezintasunen zuzenbide-kontzeptua hobeki aplikatu dadin.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

21. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko idazkariak izendatuko du idazkari bat. Izendatua Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea ez den bat izan ahalko da, eta kasu horretan hizpidearekin bai baina botorik gabe ariko da bilkuretan. Idazkariak ez du ikasketak nahiz ikerketa arloko eginkizunik izanen Unibertsitatean.”

Zioak: Idazkari kargua betetzen duen pertsona kidea bada, ez dirudi zentzuzkoa denik botorik ez izatea. Testu honek xehetasun hori zuzentzen du; beraz, izendatutako pertsona ez bada Gizarte Kontseiluko kidea, pertsona horrek ez du botorik emanen, baina emanen du, kidea bada.

14. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko testu osoan aldaketa egiteko zuzenketa.

Gaztelaniazko testuan “Universidad Pública de Navarra” jartzen duen guztietan “Nafarroako Unibertsitate Publikoa” ere agertu beharko litzateke.

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren izen ofiziala ele bitan idatziko dela bermatzea, Nafarroako hizkuntz errealitatearekin bat.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera azter dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan arteetako batxilergoa ezartzeko eta arte eszenikoetako, musikako eta dantzako hezkuntza-ibilbideen plangintza egiteko aukera.

Zioen azalpena

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege organikoak batxilergo modalitateak definitzen ditu IV. kapituluan –34.1 artikuluan–, horien artean arteetako batxilergoa. Maiatzaren 14ko

66/2008 Foru Aginduak ere batxilergo modalitateen artean sartzen du arteetako modalitatea. Foru agindu horretako II. eranskinean, berriz, arteetako modalitateko irakasgai berekiak jasotzen dira, eta bi ibilbide ezartzen: arte plastikoak, diseinua eta irudia eta arte eszenikoak, musika eta dantza.

Nafarroan ikasle askok eta askok egiten dituzte musika, eszena eta dantza ikasketak, baina musikako batxilergo bakarra dago, irakasgai komunak konbinatzen dituen, eta halaxe taxutzen da musika ikasketen maila ertaina. Gisa horretan lortutako batxilergoko tituluak, ordea, ez du bide ematen unibertsitateko goi mailako ikasketak egiteko, horren bidez goi mailako musika ikasketak soilik egin baitaitezke.

Nafarroak baditu modalitateko irakasgai berri-azkoak emateko adina irakasle kontserbatorioetan eta dantza eskoletan; halatan, diren beharrianei erantzunen dien antolakuntza-eredua ezar daiteke.

Une honetan, kontserbatorio berriko eraikina egiten ari direlarik –horrek arte ikasketak sustatzen lagun dezake–, komenigarria izanen litzateke aztertzea zer aukera dagoen arte eszenikoen esparruko hezkuntza-ibilbide bat egiteko.

Mozioa

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter eta balioets dezan bigarren hezkuntzako ikastetxeren batean arteetako batxilergoa jartzeko aukera, eta hezkuntza-plangintza bat gara dezan, arte eszenikoen, musikaren eta artearen alorreko prestakuntzari bide emate aldera.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten dio Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kV-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baito Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari Gasteiz-Castejón-Muru Artederretako 400 kV-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginen dizkien kalteak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Gaia: Zirkuitu bikoitzeko 400 kV-eko linea elektrikoaren, Muru Artederretako eta Castejongo azpiestazioen arteko zirkuitu bikoitzeko 400 kV-eko lineako Gasteizko azpiestazioan.

Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak agiri bat igorri die orain dela gutxi Estellerriko zenbait udali, Gasteizko azpiestazioa eta Muru Artederretako eta Castejongo azpiestazioak lotzeko 400kV-eko linearen instalazioa –Red Eléctrica de España, S.A.k sustatua– dela eta.

Instalazio horrek beharrezkoa du ingurumen eraginaren azterlana izapidetzea, eta behin betiko

proiektua aurkeztu aitzin kontsulta egin behar zaie jarduera horrek uki ditzakeen pertsonei, administrazioei eta erakundeei, alegazioak aurkez baititzakete lege ezarritako epean.

Ingurumen organoak emandako informazioaren arabera, neurri handiko sare elektrikoaren paratu nahi da: profil metalikozko 42 edo 46 metroko dorreak, elkarrengandik batez beste 400 edo 500 metrora paratuak, gehienez ere 900 metrora bata bestearengandik, 100 metrorainoko hormigoizko zapatek finkatuak.

Bide-zorrak egonen dira lurzoru pribatuan, dorreen oinarriek lurzorua egiaz okupatuko baitute, eta sare elektrikoaren inguruan debekatuta egonen da zuhaitzak landatzea eta eraikinak nahiz industria-instalazioak eraikitzea.

Zuhaitzak moztuko direla ere ezarri da, “kale” bat irekitzearen. Kale horrek 4tik 6 metrora bitarteko zabalera izanen du gutxienez ere gidarien eta zuhaitzen artean, eta dorre bakoitzak 16 metroko zabalera duenez gero, 26 metro inguruko ebaki bat geldituko da.

Aipatu proiektuak bete-betean ukitzen du Estellerria ondoko tarteen: H tartea (Zuñiga, Mendaza, Antzin, Piedramillera eta Legaria), I tartea (Marañón, Aguilar Kodeskoa eta Azuelo), J tartea (Torralba del Río, Esprontzeda, Desojo, Mendaza, Mués, Sorlada, Etaio, Los Arcos eta Villamayor de Monjardín), K tartea (Azuelo, Bargaota, Esprontzeda, Armañanzas, Torres del Río, Sansol, Los Arcos, El Busto, Piedramillera, Lukin, Arroitz eta Sesma), L tartea (Okó, Etaio, Olexua, Abaigar, Villamayor de Monjardín, Iguzkitza, Lukin, Arellano, Deikaztelu, Morentin, Aberin, Villatuerta eta Oteitza), M tartea (Villamayor de Monjardín, Lukin, Barbarin, Arroitz, Arellano, Deikaztelu, Morentin, Aberin eta Oteitza), N tartea (Barbarin, Arroitz, Arellano eta Deikaztelu) Ñ tartea (Okó, Etaio eta Villamayor de Monjardín), O tartea (Oteitza, Villatuerta, Zirauki, Mañeru, Gares, Mendigorria eta Artaxoa).

Goi tentsioko linearen instalazioak Estellerriko naturguneak ukituko ditu, ondokoak hain zuzen ere:

Batasunaren intereseko lekuak (Urbasa-Andia, Ega eta Urederra ibaiak, Lokiz eta Kodes), natur-gune babestuak (Leringo pinudien natur lekunea, Urbasa eta Andiako natur parkea, Urederraren iturburuko natur erreserba, Basaurako natur erreserba, Lasiako erreka natur erreserba, Peñalabeko natur erreserba), eta intereseko beste zenbait leku (Esteparias, Baigorri eta aldiriak, Landibar, Zabaleta-La Mesa, Baigorriana, El Salobre, Lama-par, La Tiñosilla, Santa Cruz eta Ega gaineko eba-kiak...), eta goi tentsioko linea horren ingurumen eraginaren azterlanaren kartografian jasota dauden beste batzuk. Estellerian lehentasunezko hiru habitat daude sakabanatuta, habitatei buruzko 92/43/CEE zuzentarauan jasota baitaude: 1520* erromero eta ez kai sastrakak; 6220* Mediterraneo-ko larre xerofitikoak, urterokoak eta bizikorak, eta 9180* baso mistoak eta erroitz-oineko ezkiak. Habitat horietan konprometituta daude ondoko udalen azaleraren zati handi bat: Aras, Aguilar Kodeskoa, Azuelo, Torralba del Río, Esprontzeta, Bargota, Mues, Sorlada, Arroitz, Los Arcos, Sesma, Lerin eta abar. Lehentasunezko habitat horiek desagertzeko arriskuan dira, eta oso garrantzitsua da horiek kontserbatzea.

Horretaz gain, Estellerriko irudirik esanguratsuenetako bat ukitzen du: onura publikoko mendiak, eginkizun ekologiko ukazina duten mendi publikoak baitira. Horren barruan daude, ukitutako azalera zein ere den, ondoko herriak: Abaigar, Abar-tzuza, Aberin, Aguilar Kodeskoa, Allin, Ameskoa, Antzin, Aranaratxe, Arroitz, Aiegi, Azuelo, Bargota, Cabredo, Deikaztelu, Lizarra, Eulate, Genevilla, Gesalatz, Iguzkitza, Lana, Lapoblación, Meano eta Marañón, Larraona, Los Arcos, Lukin, Mendaza, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Nazar, Piedramillera, Jaitz, Torralba del Río, Villamayor, Deierrri eta Zuñiga.

Goi tentsioko linea instalatzen baldin bada, ezi-nezkoa izanen da proiektuak ukitutako Estellerriko udalen ekonomia nahiz gizarte garapena, eta bereziki biztanle gutxiko herriena, Aras kasu.

Proposatutako instalazioaren ingurumen- nahiz paisaia-eraginak kalte egiten dio ukitutako herrien ekologia- nahiz natur-baliabideen balorizazioari, eta eragin zuzena du herrien ekonomia-igurikimengangan, batez ere turismo arloko proiektuengan, zeinen bidez lortu nahi baita eremu kritikoetako –mendialdeko ibarrak eta herri txikiak– biztanleak finkatzea eta ekonomia suspertzea.

Estellerriko paisaia berezko balio bat da, eta eskualdearen berezitasuna nabarmentzen laguntzen du; hortaz, ez da koherentea paisaia hori errotik aldatuko duen instalazio bat paratzea.

Azaldutako faktore horiek guztiak, azken finean, gure herrien etorkizunerako mehatxu larriak dira, bizilagunen bizitza-kalitatearen kaltetan noski, herritarrek beren herrien, eta hortaz euren etorkizuna eta ekonomia aldatzen ikusiko baitute.

Erabaki proposamena:

1. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Ministerioari eta, zehazki, Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari adierazten dio Gasteiz-Castejón-Muru Artederrretako 400 kV-eko linea elektrikoaren aurka dagoela, ingurumen- eta paisaia-intereseko guneei eraginaren dizkien kalteak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentua kezkatuta dago proiektu horrek zeharkatuko dituen udalei eginen dien kaltea dela-eta, etorkizunean horien ekonomia-nahiz gizarte-garapena baldintzatu dezakeelako.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babes osoa eman nahi die goi tentsioko linea horrek zeharkatuko dituen udalek hartutako erabaki eta ekimenei.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Ingurumen Ministerioari eta Red Eléctrica Españolari erabaki hau igortzea, eta proiektua erretiratzeko eta alternatiba bideragarriak bilatzeko eskatzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetara erabilera soziala emateko.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, toki entitateekin koordinatuta, plan bat aurkez dezan, Foru Komunitatearen jabetzakoak izanik egun hutsik dauden edo nahitaezkoa ez den erabilera duten etxebizitzetara erabilera

soziala emateko, Osoko Bilkuran izapidetu dadin xedatzea. Mozio hori 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate osoari egiten dion museo-eskaintzari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitate osoari egiten dion museo-eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Turismo kontseilariaren ustez, Nafarroako Gobernuak egiten duen museo-eskaintza orekatua al da Foru Komunitate osoan?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Cáritasekiko hitzarmena, gizarteratzeko etxebizitzetarako buruzkoa, ez berritzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Etxebizitzari buruzko galdera.

- Zergatik ez da berritu gizarteratzeko etxebizitzari buruzko hitzarmena Cáritasekin?

• Zenbat familiak baliatzen zuten urtero hitzarmen hori? Zein herritan zeuden etxebizitza horiek?

• Etxebizitza Departamentuak ba al du asmorik babes ofizialeko etxebizitzak berariaz erreserbatzeko gizarte bazterkerian bizi diren familientzat?

• Plan horrek zergatik ez du funtzionatzerik izan azken ekitaldian?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko zergatik ekoizleek berandu jaso dituzten NPBko 2007ko laguntzak.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ekoizleek berandu jaso dituzten NPBko 2007ko laguntzak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2007ko kanpaina Nafarroako 18.054 ekoizleek jaso zituzten ordainketa bakarrek eta azalerengatik laguntzak, guztira 78.909.500 euro.

Ekoizleek lau epetan jaso zituzten nekazaritza politika bateratuko 2007ko laguntzak: 2007ko irailaren 27an, 2007ko azaroaren 28an, 2007ko abenduaren 19an eta 2007ko abenduaren 28an gutxi gorabehera.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Ekoizleek zergatik jaso zituzten hain berandu NPBko 2007ko laguntzak?

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak NPBko laguntzak aurreratze aldera?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du Apopilo-etxe babestuak izeneko bizilekuei buruz:

- Nola funtzionatzen du gaur egun baliabide horrek?

- Administrazioak zer dirulaguntza ematen die hala erabiltzaileei nola zerbitzuaren titularrei?

- Departamentuak gainbegiratzen al ditu alderdi mediko eta sozialak?

- Non metatzen dira zerbitzu horiek?

- Zerbitzuen zorroa onetsi ondotik, zer tratamendu ematen zaio orain zerbitzu horri?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Castejóngo Hidrocantábrico zentral termikoa lanean hasi izanaren berri.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen Castejóngo Hidrocantábrico zentral termikoa lanean hasi izanaren berri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du Castejóngo Hidrocantábrico zentral termikoa, zeinaren ingurumen-baimen integratua baliogabea dela ebatzi baitzuen Nafarroako Auzitegi Nagusiak, lanean hasi izanaren berri?

Hala baldin bada, noizdanik ari da zentrala lanean?

2. Zer baimen ditu Castejóngo Hidrocantábrico zentral termikoak energia elektrikoa ekoiztu eta merkaturatzeko?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ingurumen kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumenaren gaineko eraginari buruzko galdera.

Zure Departamentuaren ustez, proiektu horrek ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioaren prozedura bete behar al du?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Gobernu Kontseiluaren araudiari eta bilkuren aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzuteko:

– Bilkurak egiteko zer araubide du Nafarroako Gobernu Kontseiluak?

– Bilkurak egiteko zer araubide du Nafarroako Gobernu Kontseiluak?

– Gobernu Kontseiluak zer bilkura ditu aurreikusita ondoko hilabeteotan? Adierazi noiz eta non egingen diren bilkura horiek.

– Gobernu Kontseiluaren bilkurak Iruñean egingen ez direnean, zer irizpide erabiltzen da bilkura egiteko tokia zehazteko? Toki entitateekiko zer komunikazio-protokolo dago ezarria?

– Nafarroako Gobernu Kontseiluak asmoa baldin badu bilkurarik egiteko ondoko asteotan Iruñetik kanpo, zer komunikazio igorri zaie toki entitateei? Igorri komunikazio horien kopiak. Zer erantzun jaso dira? Igorri erantzun horien kopiak.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari dagokionez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak bi enpresa nafarrekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa, Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazio gehiago jartzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikulua eta

hurrengo babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzuteko:

2006ko ekainean, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu du ibilgailuen azterketa teknikorako emakidak dituzten bi enpresarekin, Revisiónes de Navarrarekin eta Tüv Rheinland Navarrarekin, Nafarroan IAT estazio gehiago jartzeko. Dirudenez, lehentasuna eman nahi zaio estazioak Lizarran, Altsasun, Zangozan eta Oronoz Mugairin egoteari.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zertan da hitzarmen horien betetzea? Zehaztu bete dena eta betetzeke dagoena.

– Aztertu al da Tafallan IAT estazio bat jartzeko aukera?

– Lurralde antolamenduko zer irizpide erabili dira?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko noiz egingen diren Leitza eta Doneztebe arteko NA-170 errepidearen 15,5 kilometro puntuko lanak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Leitzatik Doneztebera bitarteko NA-170 errepideko 15,5 kilometro puntuan luizi nahiko handia gertatu zen 2008ko martxoaren 28ko elurtearen eta euritearen ondorioz.

Hormigoizko xafla batzuk paratu ziren kilometro puntu horretan lurrari eusteko, bai eta seinalizazio-panelak ere.

Bi hilabete baino gehiago igaro dira harrezkero, eta tokiak berdin-berdin jarraitzen du. Kontuan hartuta tokia arriskutsua dela –bihurgunea baita–, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak noiz du esku hartzeko asmoa?

Zer obra egingen dira? Eman horien kostua, banakatuta.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako haur eskoletan 2006., 2007. eta 2008. urteetan izandako aurrematrikula eskaerei eta eskainitako plaza kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Haur Hezkuntzako eskaintzaren eta eskariaren bilakaera aztertu ahal izateko, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– 2006an, 2007an eta 2008an jaiotako neska-mutikoen kopurua.

– Nafarroako haur eskoletan aipatu urteetan egindako aurrematrikula-eskaerak. Banakatu zentroen, herrien, ereduaren eta tarteen –titikoak, ibiltariak, erdikoak eta lorategikoak– arabera.

– Nafarroako haur eskoletan eskainitako ikaspostuen kopurua. Banakatu zentroen, herrien, ereduaren eta tarteen arabera.

– Nafarroako haur eskoletan ikaspostu bat eskatu arren ikasposturik lortu ez duten neska-mutikoen kopurua. Banakatu zentroen, herrien, ereduaren eta tarteen arabera.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 26an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako deialdia onestea.

2. Deialdi hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdia, Nafarroako Parlamentuan administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako

1. oinarria. Xedea.

1. Administrarien aldi baterako administrazio-kontratazioetarako izangaien zerrenda egitea. Zerrenda hori beharrezkoak diren aldi baterako kontratazioak egiteko baliatuko da, eta gehienez ere 6 urteko indarraldia izanen du.

2. Nafarroako Parlamentuak zerrenda hori baliatzen duenean, hautatutako pertsonen aldi baterako administrazio kontratua eginen die Legebiltzarrek, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen estatutuko 4.2 artikuluan xedatuarekin bat. Kontratudunek Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamenduko 82.4 artikuluan ezarritako eginkizunak beteko dituzte.

3. Zerbitzuak emateko araubidea Legebiltzarreko administrarientzat ezarritakoa izanen da.

2. oinarria. Baldintzak.

1. Ondoko baldintzak bete behar dira hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko:

a) Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda egotea, Nafarroako enplegu bulegoren batean.

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

d) Goi Mailako Batxilergo, Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo haien baliokide den titulu baten jabe izatea.

e) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.

f) Eginkizun publikoetan jarduteko desgaitasunik ez izatea edo etenarazpenik ez izatea eta administrazio publiko bateko zerbitzutik bereizia ez izatea.

d) Euskaraz jakitea berariazko baldintza gisa duen lanpostua eskuratu nahi bada, arestiko baldintzak betetzeaz gain, honako titulu hauetakoren bat izan behar da: euskarazko gaitasun agiria (goi zikloa), hizkuntza eskola ofizial batek emana, EGA titulua, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) euskarazko 5. maila egiaztatze-ko eginiko probak gainditu izanaren ziurtagiria, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den beste titulu bat. Bestela, euskararen jakintzan 5. maila egiaztatzen duen proba bat gainditu behar da; proba hori NAPIk eginen du, proben emaitzak argitaratu aurretik.

3. oinarria. Izangaiak

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztenekin Nafarroako Parlamentuari aurkezten dizkion izangaien eginen da hautaketa-prozesua.

2. Izangaiak eskabidea aurkeztu behar duen hautaketa-prozesuan parte hartzeko (l. eranskineko eredia). Eskabideak ondokoak jasoko ditu: izen-abizenak, adina, jakinarazpenetarako helbidea, telefonoa edo posta elektronikoa, bai eta eskabidea aurkezteko ezarritako epea bukatzen den egunean 2. oinarrian ezarritako baldintza guzti-guztiak betetzen dituelako aitortpena ere.

Eskabidean orobat adieraziko dute ezen, kontratua egiten baldin bazaie, eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten agiriak aurkeztuko dituztela.

3. Eskabidearekin batera aurkeztuko dira alegaturiko merezimenduen zerrenda eta merezimen-du horiek frogatzeko agiriak.

4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

1. Ondokoek osatuko dute hautaketa-prozesuko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Ana Figueras Castellano andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: José Andrés Burguete Torres jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Epaimahaikidea: Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren ondokoa.

Ordezkoa: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Epaimahaikidea: Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Oroko- rretako burua.

Ordezkoa: Javier Fortún Pérez de Ciriza jauna, Nafarroako Parlamentuko Liburutegi, Artxibo eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: Nafarroako Parlamentu-ko Langileen Batzordeak izendatu behar du.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatu behar du.

Epaimahaikidea: M^a Victoria Larrañeta Lizar- rondo andrea, Nafarroako Parlamentuko teknikari diplomatua.

Ordezkoa: M^a Vicenta Fernández Gelos andrea, Nafarroako Parlamentuko administraria.

2. Epaimahai kalifikatzailea izangaien zerrenda jakinarazi ondoko bost eguneko epean eratu da. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bildu gabe.

3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

4. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Mahaiari, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta adminis- trazio prozedura erkidearen Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

1. Izangai bakoitzari deialdi honen II. eranskine-ko baremoaren arabera dagokion puntuazioa emanez egingen da alegaturiko merezimenduen kalifi- kazioa. Gehieneko kalifikazioa hamabost puntukoa izanen da.

2. Agiri originalen edo notarioak nahiz adminis- trazioak konpultsatutakoen bidez justifikatuko dira merezimenduak, eta baremoaren aplikaziorako beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute agiri horiek. Ez dira aintzat hartuko justifikatu gabeko merezimenduak.

3. Epaimahaiak Nafarroako Parlamentuaren iragarkien oholean eta webgunean emanen du jakitera eginiko balorazioaren emaitzari buruzko erabakia, zeinean izangai bakoitzak lortutako pun- tuazioa azalduko baita.

7. oinarria. Probak noiz hasi eta nola egingen diren.

1. Merezimenduen kalifikazioaren emaitzak jaki- narazteko erabakian berean jakinaraziko da –hiru egun balioudun lehenago gutxienez ere– lehen ari- keta zein egunetan, zein ordutan eta zein tokitan egingen den.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute probetara.

Horra hautaprobak:

A) Lehen ariketa:

Bi zati izanen ditu, bata bestearen ondotik egi- nen direnak:

a) Ezagutzari buruzko proba.

Zenbait galdera erantzun beharko dira idatziz, honakoen ezagutza baloratzeko: Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoa, Herri administrazioen araubide juridi- koaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea, Nafarroako Parlamentuko Langileen Esta- tutua eta Nafarroako Parlamentuko administrazio- ko antolamenduari buruzko Erregelamendua.

Iraupena: 60 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 15 puntu

b) Proba praktikoa.

Proba praktiko bat izanen da, Nafarroako Par- lamentuan administrari lanean ohikoa den infor- matikaren inguruko funtsezko ezagutzei buruzkoa: hardwarea, softwarea (Word, Access eta Excel) eta Windows sistema eragilea, bai eta Internet (Explorer) eta posta elektronikoa ere (Outlook).

Iraupena: 60 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 30 puntu

B) Bigarren ariketa:

a) Ortografiako proba.

Epaimahaiak prestatutako ortografiako proba bat –diktaketa nahiz galdetegi bidez egin ahalko dena– ebatzi beharko da.

Iraupena: 15 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

a) Mekanografiako proba.

Oposiziogileek nor bere makina erabiliko du proba honetan, eta ez dira onartuko ez elektrikoak, ez elektronikoak. Proba III. eranskinean ezarritakoari jarraikiz eginen da.

Iraupena: 10 minutu.

Gehieneko puntuazioa: 10 puntu

2. Gainditu ahal izateko, izangai bakoitzak, gutxienez ere, proba bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 lortu beharko du.

3. Ariketak plika itxien bidez eginen dira. Epaimahaiak beharrezkoa dela iritziz gero, pliken sistematik salbuetsi ahalko da lehen ariketako b) proba praktikoa.

4. Plikak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, eta ekitaldi hori gutxienez hogeita lau ordu lehenago iragarriko da Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean eta webgunean.

5. Deialdiko 8.2 oinarrian adierazitako iragarkiak jendaurrean jartzen dituztenean, epaimahaiak ariketak gainditzen dituzten izangaien zerrenda jarriko du, horietako bakoitzak lortutako puntuazioarekin batera.

8. oinarria. Azterketak gainditu dituztenen zerrenda.

1. Merezimenduak balioetsi eta hautaketa-proba guztiak kalifikatu ondoren, probak gainditu dituztenen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, eta hartan, puntuaziorik handienetik txikienerako hurrenkeran adieraziko dira izangaien izenak.

2. Epaimahaiak azterketak gainditu dituztenen zerrenda jarriko du Nafarroako Parlamentuaren iragarkien oholean eta webgunean.

3. Guztizko puntuazioan berdinketarik gertatzen baldin bada, hautapen fasean puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren alde hautsiko da berdinketa.

9. oinarria. Kontratazioak.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamenduak arautzen ditu Nafarroako Parlamentu-

ak egiten dituen kontratazioak. Kontratazio mota hau erregelamenduko 5. artikuluko kontratazio zerrendei dagokie.

1. Kontratazio bat egin behar baldin bada, azterketak gainditu dituztenen puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz egin den zerrendako hurrenkerari lotuko zaio Mahaia. Horretarako, kontratazko proposatutako izangaiak ondoko agiriak aurkeztuko ditu Parlamentuko Erregistro Orokorrean, kontratazioa jakinarazten denetik hasita hamar egun naturaleko epean:

a) Jaiotza-aktaren ziurtagiria edo Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.

b) Administrazio publiko bateko zerbitzutik berezia ez egoteari eta eginkizun publikoak betetzeko desgaiuntzarik edo etenarazpenik ez izateari buruzko zinpeko adierazpena.

c) Eskatzen diren tituluen kopia kautotua edo fotokopia konpultsatua edo egin diren ikasketen ziurtagiri akademikoa edo horiek jasotzeko eskubi-deak ordaindu izanaren frogagiria.

d) Halaber, kasuko eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Mahaiak zehazturiko fakultatibo edo erakunde-ak eginikoa.

2. Aurreko letretan aipatutako agiriak aurkeztea ezinezkoa gertatzen dela behar bezala frogatzen denean, zuzenbidean onarturiko edozein frogabide erabiliz frogatu ahalko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla.

3. Aipatu epearen barrenean, eta ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkezten ez badira, pertsona hori ezin izanen da kontratatu, hasierako eskabidearen faltsukeriagatik izan dezakeen erantzukizuna ezertan ere galarazi gabe. Kasu horretan, deialdiko 9. oinarrian aipatzen den zerrendan puntu gehien lortu duen hurrengo izangaiak kontrataztea proposatuko da.

10. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hautaketa-prozedura hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsotako bat aurkez daiteke, araudi indardunean xedatutakoarekin bat:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko

Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko gauzatzen dituen gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Izen-deiturak:,
adinez nagusia, NAN zenbakia:, jakinarazpenetarako helbidea (kalea, zenbakia, solairua, posta kodea eta herria):, telefono zenbakia:, posta elektronikoa:

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrarien aldi baterako administrazio-kontratuzko izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako deialdiaren berri izan dut, eta horretan parte hartu nahi dut.

Hirugarren oinarrian xedatutakoari jarraikiz, erantsitako agiri batean zerrendatu ditut, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta horiek frogatzeko agiriak.

Deialdiko bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut eskabideak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Konpromisoa hartzen dut, baldin eta horretarako izendatzen banaute, deialdiko bederatzigarren oinarrian aipatzen diren agiriak kontratua sinatzen den unean aurkezteko.

Aurrekoaren indarrez,

ESKATZEN DUT ezen, idatzi hau aurkeztu dudalarik, onar nazazun Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrarien aldi baterako administrazio-kontratuzko izangaien zerrenda bat egiteko hautaketa-prozesu baterako deialdi horretan.

Iruñean, 2008ko ekainaren

(Sinadura)

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI TXIT GARAIA.

II. ERANSKINA

Merezimenduen baremoa

Deitutako lanpostuetako eginkizun berariazkoen antzekoak bete izana edo zerbitzuak eman izana, hala administrazio publikoan nola enpresa

pribatuan: gehienez ere 15 puntu. Epaimahaiak baloratuko du, kontuan hartuta betetako lanpostuen maila, horiek lortzeko zailtasuna, antzinatasuna eta destinoak.

III. ERANSKINA

Mekanografiako proba

a) Azalpena.

Izangaiek makinaz idazteko duten egiazko abiadura neurtzea da proba honen xedea; horretarako, sakaldi kopuru osoari kenduko zaizkio atzematen diren akatsak eta omisioak.

Izangaiek beren idazmakina eramanen dute, zeina mekanikoa soilik izan ahal baita. Espresuki debekatuta dago idazmakina elektrikoa, baita pilen bidez badabil ere.

b) Probako testua.

Epaimahaiak emanen duen testua kopiatu beharko da. Testu hori literarioa izanen da, eta zenbakiak eduki ahal baditu ere, zailtasunak (zuta-beak, tabulazioak, subindizeak, formulak, etab.) saihesteko irizpidea erabiliz prestatuko da, parte-hartzaile guztiei antzeko zailtasun maila segurtatzeko, bakoitzak daraman idazmakinarene ezaugarri teknikoak gorabehera, baita ariketen puntuazio objektiboa errazteko ere.

Kopiatzeko hamar minutu emanen dira. Aitzinetik, gutxienez bost minutu utziko dira aukeran, nahi duenak berotze-arietak egin ditzan.

c) Puntuazioa.

Soilik zenbatuko dira zuzen eginiko sakaldiak; zuzen eginikotzat joko dira epaimahaiak emandako jatorrizkoaren berdin-berdinak direnak.

Baliozko sakaldiak:

Epaimahaiak emanen duen jatorrizkoarekin bat datorren karaktere, tarte edo zeinu bakoitzeko, sakaldi bat.

Sakaldi ez konputagarriak:

Jatorrizkoarekin zehatz-mehatz bat ez datozen sakaldiak ez dira konputatuko: toki okerrean paratzen diren letrak, tildeak edo zeinuak, errepikatuak zein sobran daudenak.

– Testua kopiatzeko unean ezin izanen dira akatsak edo omisioak zuzendu eta, ondorioz, aurretik zeuden zeinuen gainean beste batzuk paratzen badira, ez dira baliozkoak izanen

– Hitz berean hiru edo sakaldi gehiagoko digitazio omisio edo akats eginez gero, kontaketa ondorioetarako hitz horri zuzen idatzita dagozkion sakaldi guztiak baliozkoak dira.

– Izangaiak testuan lerro bat edo gehiago idatzi gabe uzten baditu, idatzi gabeko lerro bakoitzeko hamar sakaldi kenduko zaizkio.

Proba hau gainditzeko gutxieneko abiadura 250 sakaldi minutuko izanen da, eta kanporatuak izanen dira abiadura hori erdiesten ez duten izangaiak.

Gutxieneko maila hori gainditzen duten ariketak, baliozko sakaldi kopuruaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera, eta hurrengo baremoaren arabera kalifikatuko dira:

- Baliozko 250 sakaldi minutuko,5 puntu.
- Baliozko 251tik 260rainoko sakaldi minutuko,5,5 puntu.
- Baliozko 261etik 270erainoko sakaldi minutuko,6,0 puntu.
- Baliozko 271tik 280rainoko sakaldi minutuko,6,5 puntu.
- Baliozko 281etik 290erainoko sakaldi minutuko,7,0 puntu.
- Baliozko 291tik 300erainoko sakaldi minutuko,7,5 puntu.
- Baliozko 301etik 310erainoko sakaldi minutuko,8,0 puntu.
- Baliozko 311tik 320rainoko sakaldi minutuko,8,5 puntu.
- Baliozko 321etik 330erainoko sakaldi minutuko,9,0 puntu.
- Baliozko 331tik 340rainoko sakaldi minutuko,9,5 puntu.
- Baliozko 341 sakaldi minutuko edo gehiago, ..10,0 puntu.

b) Proba kronometratzea.

Lehenik eta behin, epaimahaiak orri zuri bat emanen du, izangaiak, nahi izanez gero, berotze-ariketak egin ditzaten.

Aldez aurreko digitazio-denbora hori bukaturik, aldez aurreko ariketetan erabili diren orriak bildu eta baliorik gabe utzi eta ariketari berari hasiera eman baino lehenago, proba hasi eta bukatzeko seinaleak zeintzuk izanen diren adieraziko zaie parte-hartzaileei (bukatzeko seinaleak bi denbora izanen ditu, aurreabisua eta behin betiko gelditzea, bien artean minutu bateko tarte utzita).

Gelditzeko azken aginduari kasu egiten ez dionten izangaiak probatik bazterturik geldituko dira.

Parte-hartzaileei kopiatu beharreko testua eta ariketa egiteko orriak banatuko zaizkie. Testua lerro bateko tartean kopiatu beharko da eta jatorrizko testu-antolaketari atxikiko zaio zuzen-zuzen.

Espresuki ohartaraziko zaie parte-hartzaileei ariketa ez dela, behin hasirik, inolaz ere geldituko, eta idazmakinen funtzionamendu zuzena parte-hartzaileen beren erantzukizuna dela. Beraz, gerta daitezkeen matxurak ez dira inongo ondorioetarako kontutan hartuko.

Ariketa egiten ari den bitartean gerta litekeen edozein gorabehera ebazteko, parte-hartzaileak ariketa hori zuzentzeko ardura dutenei bakarrik zuzenduko zaizkie.

Epaimahaiak, antolamendu kontuak direla eta, talde desberdinak egin ditzake. Hala egiten badu, talde bakoitzean ariketa hasi baino lehenago, eta beharrezkoa bada, proba horretako testua zein izanen den jakiteko zozketa egingen da.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko 2008ko maiatzaren 29ko akordioa, 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren 2.1 idatz-zatiko bigarren lerrokada aplikatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita legelari nagusiak eta Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak eginitxo txostenak –Nafarroako Parlamentuak eta Langileen Batzordeak 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako hitzarmeneko 2.1 artikuluko bigarren lerrokadan xedatutakoaren aplikazioari buruzkoa–, eta ikusita orobat Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen ordezkariak 2008ko maiatzaren 29an sinatutako akordioa, ondokoa erabaki dut:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko 2008ko maiatzaren 29ko akordioa, 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren 2.1 idatz-zatiko bigarren lerrokada aplikatzeari buruzkoa.

2. Akordioa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Langile Batzordearen arteko 2008ko maiatzaren 29ko akordioa, 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren 2.1 idatz-zatiko bigarren lerrokada aplikatzeari buruzkoa

Ondokoa erabaki da Nafarroako Parlamentuak eta Langileen Batzordeak 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako hitzarmeneko 2.1 artikuluko bigarren lerrokadan xedatutakoa –Legebiltzarraren zerbitzuko langile guztiei eros-ahalmenari eutsiko diotela bermatuko zaiela– betearazte aldera:

1. Legebiltzarreko langileen lanpostu-osagarria igotzea 2008ko urtarrilaren 1etik aitzina; langilea zein mailatakoa den, honenbestekoa izanen da igoera:

- A mailakoak: % 5,00
- B mailakoak: % 4,60
- C mailakoak: % 4,50
- D mailakoak: % 4,50

Etorkizunean, ehuneko horiek Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuan sortzen den ordainsari-kontzeptu berri batera eramaten ahal dira.

Osagarri hori igotzea ezinezkoa den kasuan, horri dagokion ordaina ziurtatuko da, aldez aurretik egin beharreko azterlanak eginda eta, kasu bada, negoziazio mahaiari negoziatuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hartu beharreko erabakiak hartuko ditu akordio hau garatu eta betearazte aldera.

Elena Torres Miranda, Jesús Javier Marcotegui Ros, Isabel Fadrique, Juana Díaz de Rada Turumbay, Xabier Aristegieta, Asunción Marzal, Nekane Iriarte, Araceli Iturri eta Amaia Mitxelena

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2008. urterako plantilla organikoa aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez onetsi baita Nafarroako Parlamentuaren ordezkari- en eta Langile Batzordearen arteko 2008ko maiatzaren 29ko akordioa, 2004tik 2007ra bitarteko urteetarako sinatutako hitzarmenaren 2.1 idatz- zatiko bigarren lerrokada aplikatzeari buruzkoa, ondokoa erabaki dut:

1. Nafarroako Parlamentuaren plantilla organi- koa aldatzea 2008ko urtarrilaren 1etik aitzina; har- tara, igo eginen da Legebiltzarraren zerbitzuko

langileen lanpostu-osagarria; langilea zein maila- takoa den, honenbestekoa izanen da igoera:

A mailakoak: % 5,00

B mailakoak: % 4,60

C mailakoak: % 4,50

D mailakoak: % 4,50

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz- kari Ofizialean argitaratzea, eta Zerbitzu Orokorre- tako buruari eta Kontu-hartzaitza eta Gai Ekono- mikoetarako buruari igortzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA	ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
Urtebete	47,00 euro	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,25 »	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,40 »	Navas de Tolosa, 1
		31002 IRUÑA